

TOMAS GARBIZUREN EKARPENA

ELIZ KANTUTEGIAN

(APORTACION DE TOMAS GARBIZU A LA MÚSICA RELIGIOSA)

Entre las múltiples facetas que presenta la figura de Tomás Garbizu en el campo musical, está la dedicada a la música religiosa. La Dirección de la Quincena Musical 1990 entendió que en este Encuentro, junto a su aportación a la música profana, era justo prestar también atención a su música religiosa.

Dentro de la brevedad que se me pide, trataré de dar una visión lo más completa posible de sus composiciones religiosas; pero me ceñiré de manera especial a su participación en la renovación del repertorio de cantos para la liturgia en el período que sigue al Concilio Vaticano II.



Secundado el deseo de la Organización, mi intervención será en euskara, puesto que también ha sido compuesto sobre textos en euskara la casi totalidad de esta producción de Garbizu.

Ez litzateke Tomas Garbizuren musika lanaren azalpen jatorra egingo, beronek eliz kantutegiaren berrikuntzarako egindako lan zabala aipatuko ez balitz. Ez dugu esan nahi, hau izan zenik haren lanik bikainena ezta garrantzitsuena ere. Baina, aitortu beharra dago, nahiz eta askotan partitura laburrak izan, ez dela bazterrera uztekoa eliz kantutegirako berak egindako lana.

Gauza jakina da, eliz kantuaren deiturapean ez direla sartzen eliz musikak hartzen dituen alor guztiak. Garbizuk baditu organaroako eta beste musika tresnetarako egindako lanak. Horietako batzuk lehiaketetan lehen sariak merezi izan dituzten lan bikainak dira. Baina gaurko hitzaldi honetan ez gara horiek aztertzen hasiko. Ez naiz ni, hain zuzen, pertsonarik egokiena eginkizun horretarako.

Eliz kantuaren alorra da, nik azaldu nahi dudana. Eta gai honi buruz esan beharra dago, aspaldi hasi zela Tomas eliz kantugintzan. Laburki bada ere, gogora ditzagun haren lanik apagarrienak:

— Badu «Cum jubilo» izeneko Meza bat, 1931n egina. Erromatar gregoriano bilduman, «Cum jubilo» deritzan IX. Kyrie oinarri harturik egina

dago. Doinu hori abesbatzaren hiru ahots berdin tartekatuz erabiltzen du, organoa lagun duela.

— «Benedicta» Meza 1959an egina du. Andre Mariaren gregoria-
nozko doinu bat beste euskal doinu batekin nahasiz, lirismo berezia lortzen
du. Baina Meza honi buruz zabalago hitzegingo digute ondorengo hitzal-
dian.


— Beste bi Meza idatzi zituen 1962: «Fons bonitatis» izenekoa
—hemen ere gregorianozko II. Kyrie hartzen du onarri, abesbatzaren lau
ahots nahasi tartekatzen dituela, organoaren laguntzarekin—,

— eta «Cunctipotens Genitor Deus» Meza: hau ere 1962koa, eta
bere paperetan ikus daitekeenez, oraindik «estreinatu gabe» dagoena.
Gregorianozko IV. Kyrie hartzen du oinarri, abesbatzaren lau ahots nahasi
tartekatuz, organoa eta orkestra lagun dituela. Joan XXIII. Aita Santuari
eskainia dago. Eta Meza hauetako ohizko zatiez gainera, organo eta or-
kestarako zati bereziak sartzen ditu: Ofertorioa, Jaunartzea eta Amaiera.
Azkeneko honetan, batez ere, armonia bide berrietan sartzen da eta jai giro
berezi eta bizia lortzen du, baina musika lan osoarekin batasunik eten
gabe.

— Baditu beste kantu laburragoak ere Eukaristiaren, Andre Ma-
riaren eta zenbait santuren omenetan eginak. Bat edo beste aipatzearren,
oraindik 14 urtetako
gaztetxo zela,
1915ean, Arantzazun
egindako «Cántico de
comuni6n» ekarriko
genuke gogora; eta
1918an Aguraingo
Klaratar lekaimeen-
tzat egindako «Motete
a Santa Clara».

Baina nire hitzalditxo
honetan, gure artean Vati-
canoko II. Kontzilioaren
ondoren eragindako liturgi
kantuaren berrikuntzan
berak izan duen ekarpena
nahi nuke azaldu, batez
ere.

Kontzilio ondoren esa-
tean, ez da azken hogeita-
bost urte hauetako aldia
bakarrik adierazi nahi.
Baizik eta aldi honetan Eli-
zan izan den ikuspegi alda-
keta da azpimarratu nahi



Santo Kristoren irudia errestauratu aurretik

dena. Eta beharrezko derizkiot ikuspegi berri horien azalpentxo bat egitea, eliz kantutegian gure Tomasek izan duen parte hartzearen esannahia egoki azaltzeko.

Kontzilio aurretik, oso ondo bereizitako bi alor ziren liturgia eta beste elizkizunak. Liturgia latinez ospatzen zen, eta liturgiarako kantutegiak ere lantinezko testuak erabiltzen zituen. Musika motari dagokionaz, berriz, ahots bakarreko gregorianoa edota ahotsetako eliz polifonia, klasikoa nahiz gaurkoa, abesten ziren. Beste elizkizunetan, berriz, kantu herrikoiak.

Kontzilioak aldaketa sakonak ekarri zituen berekin kristauon fede ospakizunari dagozkionetan. Labur-labur, eliz kantuarekin zerikusia duten hiru berrikuntza aipatuko ditut:

— Liturgia **herri hizkuntzan** ospatzea da garrantzi haundiko aldaketa bat. Begibistan dago, erabaki honek katurako duen ondorioa. Liturgia kantutegia pixkana-pixkana herri hizkuntzetan egin beharra dakar aldaketa honek.

— Bigarren, **kristau herriari liturgian parte gehiago ematea** izan da, baita kantuan ere. Kontzilio aurretik, gero eta kantu ederragoak egiten joan ziren, baina, aldi berean, gero eta zailagoak ere, herriak abestu ahal izateko. Fededunak mutu geratzen ziren. Kontzilio ondorengo liturgi berrikuntzak oker hau zuzendu nahi izan zuen, dagozkion kantuak emanez herriari.

— Eta, azkenik, **abesbatzak liturgiaren zerbitzura** jarri nahi izan zituen. Abesbatzen iharduna bideratu nahi izan zuen: liturgi ospakizuna ez dadila egokiera huts izan abesbatzek beren kantaldia emateko, baizik eta liturgiaren zerbitzura egon daitezela, herriaren kantua edertu eta aberasteko.

Puntu hauek gogoan izanik, musikagileei argibideak ematen zaizkie, zenbait dokumentutan. Kantuak ospakizunetan duen garrantzia azpimarratzen da. Elizan izan ohi diren arte era guztietan, kantua dela, esaten da, denetan bikainena. Beraz, musikagileek eliz musikaren era gaurkotuak asmatu behar dituzte, lehengo altxorra aberasteko.

Eliz kantutegiaren berrikuntza honetan unerik nagusienak gogoratzekotan, 1965an Gipuzkoan eraturako kantugintza lehiaketarekin hasi behar dugu. Herriak Meza nagusian abesteko kantuak egin nahi ziren. Horretarako eratu zen lehiaketa. Goi mailako epaimahaia eratu zen, lau hiritako Musika Kontserbatorioko Zuzendari ospetsuekin:

— Norberto Almandoz Jauna, Sevillakoa, epaimahaiburua.

— Frantzisko Eskudero Jauna, Donostiakoa.

— Bitor Zubizarreta Jauna, Bilbokoa.

— Fernando Rematxa Jauna, Iruñekoa.

— Eta idazkari eta koordinatzaile gisa, boturik gabe, Jose Maria Zampirain Jauna, garai hartan Donostiako Seminarioko Kantu Arduradun eta Abesbatzaren Zuzendaria zena.



Santo Kristoren basilika
elur azpian

Meza Nagusia abesteko doinu berriekin. Ahots bakarrera eta organo laguntzaz emana dago. Lehenengok konpasetik hasi eta partitura guztian zehar, euskal doinu herrikoia gogoratzen duen gai bat darabil, «leitmotiv» gisa, eta tonu modulazioak sartzen ditu aberasgarri.


Lau urte geroago, aldareko Meza Liburua eraberritua izan zen, eta Mezaren Egunerokoan azaltzen diren betiko kantuen hitzak aldatuak. Eraberritutako zati hauek kantuz emateko, bigarren lehiaketa bat eratu zen, oraingoan Euskal Herria mailan. Hogeitik gora izan ziren, bigarren lehiaketa honetan parte hartu zuten kantugileak. Elizbarruti arteko batzorde batek egin zuen zati bakoitzaren aukeratze lana, Frantzisko Eskudero musikarari ospetsuaren ardurapean. Aukeratuak izan ziren doinu haietako bi Garbizurenak dira: damu otoitzeko «Jesus Jauna» eta sagara ondorengo «Hau da sinesmenaren» bigarren erantzuna. Geroztik, Tomasen beste lau doinurekin aberastua dago Mezaren Egunerokoa deritzan sail hau: bi «Santu, Santua», «Gure Aita» eta «Jaungoikoaren bildotsa».

Lehenengo oinarri hauek jarri ondoren, kantutegi herrikoia zegoen egin eta hornitu beharra. «Gora Jainkoa!» izeneko kantu liburusketan badira Garbizuren beste 3 kantu, eukaristi ospakizunetan erabiltzeko; eta 2 gehiago, hiletak ospatzeko.

Herri kantuak prestatu ondoren, abesbatzen kantutegia berritze lanari ekin zitzaion. Bi alderdi zituen abesbatzen kantutegia gaurkotzeak: euskal testua oinarri zuten kantu berriak egin behar ziren ahotsetara; baina, gainera, kantu horietako askotan herriari ere bere lekua eman behar zitzaion. Baditugu 17 kantu Tomas Garbizuk egina ahotsetara eta «Gora Jainkoa!» izeneko koadernoetan argitara emanak. Hauetako gehienak lehendikako kantu herrikoiak dira, orain ahotsetara jarriak; baina bada bat edo beste guztiz berritik egina. Eta guzti hauetan herriari ere bere lekua ematen zaio, errepika kantatzekoan.

Epaimahai honek ez zion inori saririk eman, baina erabilgarrienak iruditu zitzaizkion bost Meza aukeratu zituen. Eta horien artean, Tomas Garbizuren «Aintza zeruetan» izeneko Meza izan zen aukeratu. Geroztik Meza hau argitara eman zuenean, herriaren kantuari lehentasuna eman zion, baina, tarteka, doinuari sendotasuna eta betetasun armonikoa ematen dizkioten lau giza ahots sartu zituen, eta organo laguntza. Batzutan bere bidea hartzen du organo laguntzak, doinuak eskatuko lituzkeen ohizko akordeetara bere burua behartu gabe eta askatasunean ibiliz.

Urte horretan bertan, 1965ean, «Sinisten det» titulupean, beste Meza bat idatzi zuen, herriak



San Joan Eliza azken elurte
haurdian

Eta azkenik, erlijioso-erlijiosen elkarteentzat eta orokorki kristau herriaren otoitz ekintzetarako egin izan dira hainbat kantu, eliz otoitza abestuz egiteko. Sail honetan sartzen ditugu, 6 goratarre, 76 antifona labur eta 27 salmo doinu, Garbizuren asmamen biziari zor dizkiogunak.

Eliz kantugintzaren alorrean gure Tomasek sortutako doinuetan ikus daitekeen gauzarik nabarmenena, euskaltasuna dela esango nuke. Ez du doinu jakin eta ezagunik erabiltzen, baina kantuari halako euskal arnasa dario. Inondik ere, ondo bereganatua zuen gure musikaren arima.

Eta honekin batera, erlijiozko sentipenak adierazteko doinu hauetan aurki daitekeen balioa nahi nuke azpimarratu. Izan ere, lehen aldi batean, gregoria-notik abiatu eta gure doinuetara igarotzen da, elkarren artean etenik gabeko zubi bat eginez. Gerora, ordea, euskal doinuetan aurkitzen du gairik asko, testu bakoitza otoitz bihurtzeko.

Elizbarruti arteko kantu batzordearen ardurapean, Tomas gure adiskideak egindako lanak ekarri ditugu hemen gogora. Guzti hauek argitara emanak daude eta horietako asko gure elizetan erabiltzen dira. Ez dugu pentsatu behar, ordea, hor bukatzen denik, berak liturgiaren zerbitzura egindako lanaren zereenda.

Badira beste kantu batzuk Beloke eta Lazkaoko argitaletxeek argitara emanak. Baina, Garbizuren eliz kantu asko dago paperetan, han eta hemen sakanatua; berari kanturen bat eskatzen zionik inor ez bait zen geratzen Tomasen erantzunik gabe, erantzun azkarra gainera. Askok dakite horretaz, batez ere, Lazkaoko Beneditarrek eta bere jaioterria den Lezoko parroki abesbatzak.

En esta breve intervención, hemos querido presentar la faceta de Tomás Garbizu como compositor de música religiosa. Después de hacer un rápido recorrido de sus obras anteriores al Concilio, hemos recordado aquellos puntos más sobresalientes de los cambios introducidos en la renovación litúrgica posconciliar que tienen relación con el canto litúrgico, tanto popular como coral, y cuyo punto de convergencia estaría en lo que se llama la función ministerial del canto en la celebración litúrgica, es decir, que los cantos litúrgicos, además de tener una calidad y valor musical, deben cumplir el verdadero cometido que les corresponde dentro de la celebración, para ser parte integrante de la liturgia.

Hemos hecho después una relación de la aportación de Tomás Garbizu a la renovación y enriquecimiento del patrimonio musical religioso, fijándonos más detalladamente en sus composiciones de canto litúrgico popular y coral de los últimos 25 años.

Solo nos falta hacer público nuestro reconocimiento al maestro Tomás Garbizu que, con la máxima servicialidad y de una forma desinteresada, ha colaborado en la realización del actual cantoral litúrgico en euskara, enriqueciendo nuestro patrimonio musical religioso.

— EUSTASIO ETXEZARRETA —